



OSTEGUNA

2016/06/23
4. urtea, 517. zenbakia
107.6 fm · 105.0 fm
www.ataria.info

**Sei marka berri
egin ditu
Susana Davila
pultsulariak //**



ITZEA URKIZU

«Festaren ezinbesteko pieza dira dantzariak»

**IRATI ARTUTXA, ONINTZE HARTSUAGA, JUAN URRETABIZKAIA
ETA XANTINAZABAL TOLOSAKO BORDONDANTZARIAK**

Ekainaren 24ko zirrara odolean daramate Udaberri Dantza Taldeko lau bordondantzariak: txintzarri hotsek salatzen dituzte San Joan egunean, eta urteko egun garrantzitsu moduan bizitzen dute //

Jarraitu San Joan eguna!

**ataria
irratia
107.6 fm**
www.ataria.info

Ostiralean
10:00-12:00
ZUZENEAN
Tolosatik



Itzea Urkizu Arsuaga

Txintxarriak, zortzikoa eta tiroak. Hiru hitz nahikoa dira, ekainaren 24ko zirrara odolean daramatenei oilo-ipurdia eragiteko. Kanpotarrentzat *toloxarkeriak* direnak, urteko egun garrantzitsuenak bilakatzen baitira Onintze Hartsuaga (1988), Xanti Nazabal (1996), Irati Artutxa (1989) eta Juan Urretabizkaia (1990) bezalako hainbatentzat. Bordondantzari belaunaldi berri baten lekuko zuzenak dira laurak.

Laurok ere parte hartze zuzena duzue sanjoanetan.

Irati Artutxa. Tolosakoak garela, ezta? Ez, Udaberriko kide gara, eta taldeak parte hartze handia du sanjoanetan. Bezperan dantza emanaldia izaten dugu, eta egunean bertan ere bordondantzan ateratzen gara.

Juan Urretabizkaia. Nik uste dut izaera kontua ere badela, eta Udaberrin egongo ez bagina, beste nonbait ibiliko ginatekeela, aurrera eta atzera. Baina, horrez gain, Udaberrik aukera ematen digu festaren beste zati batean ere aritzeko.

Onintze Hartsuaga. Bai. Ni bordondantzan hasi baino lehen eskopetariekin ateratzen nintzen, eta uste dut, Udaberrikoak izan gabe ere, parte-hartzaileak garela, berez, festaren zati izatea gustuko dugula.

Tradizioari estu lotutako jaia da San Joan egunekoa. Zuek nola ezagutu duzue tradizio hori?

O.H. Nik sanjoanen inguruan ditudan oroitzapenak San Joan suarenak dira, ondoren dantza eta abesbatza emanaldiak ikusten genituen beti. San Joan egunean, berriz, eskopetariei begira pasatako urteez gogoratzen naiz, aita ateratzen baitzen Peña Unioneekin. Egia esan, dantzariak aureskuan bakarrik ikusten genituen, Zumardian.

X.N. Gure gurasoak Udaberriko kide izan direnez, dantza emanaldiak eta San Joan eguneko desfi-



I. URKIZU

«Zortzikoa lehen aldiz dantzatzten dugun unea da eguneko ederrena»

IRATI ARTUTXA, XANTI NAZABAL, JUAN URRETABIZKAIA ETA ONINTZE HARTSUAGA BORDONDANTZARIAK

Txintxarri hotsek salatzen dituzte, ekainaren 24an, doazen tokira doazela; tradizioari estu lotutako jaien maitale da bordondantzari belaunaldi berri hau.

lea ikustera ateratzen ginela gogoa dut.

J.U. Nik Tolosan bizi izan ditut beti sanjoanak, baina ez herrian, Urkizuko baserrian baizik. Sua bertan egiten genuen, eta su artifizialak ere handik ikusten genituen. Hilaren 24an gurasoekin meza nagusira etortzen nintzen, baina bazkaltzera berriro baserri-
ra itzultzen ginen.

I.A. Nik Txalupa tabernako bal-koitik begira pasatako orduen oroitzapenak ditut. Gurasoak han aritzen ziren lanean, eta kuadrillei nahiz eskopetariei begiratzen nien handik. Sua ikustera ez nintzen joaten, gurasoak lanean izaten zirelako, eta ETBn Tolosakoa emititzen zuten, telebistan ikusten nuen. San Joan egunean, berriz, zortzi urte nituela hasi nintzen eskopetariekin ateratzen. Lagun batzuk ateratzen ziren, eta amari esan nion: «Hurrengo urtean nik hor egon beharra daukat». **Bordondantzariak zarete laurok, eta jende gehienak ekainaren 24ko ordu horietan soilik ikusten zaituzte. Baina, zein lan du horrekatzetik?**

O.H. Aste Santu ondorengo lehen ostegunean hasten gara entseguetan, ekainera arte.

O.H. Horrez gain, astero-astero Udaberriko entseguak ere izaten ditugu, beste hiru astean.

J.U. Kontuan izan behar da, Udaberri gauza bat dela eta bordon-

dantza beste bat. Egia da Udaberriko kide ia gehienok bordondantzan parte hartzen dugula, baina bordondantzan ere parte hartzen dute gaur egun Udaberriko kide ez diren askok. Beraz, beren astero-koa gure asteko laugarren bilakatzten da, baina joan egin behar izaten da ilarak zehazteko. Baina, entseguekin batera, bordondantzak beste hainbat prestaketa ditu, adibidez, jantziei edo materialari dagokienez.

O.H. Bai, aste eta erdi baino gehiago daramagu jada, galtzak, gonak eta alkandorak lisatzen eta zenbatzen.

Berezko zifra 25 da, baina zenbat jantzi prestatzen dituzue?

O.H. Dauzkagun jantzi guztiak prestatzen ditugu eta, emakume eta gizonen trajeak zenbatuta, guztira 34-35 jantzi dira.

Sanferminetako momentikoen antzera, San Joan egunak ere badu berea: meza amaitu eta Santa Maria plazako txintxarri, kanpai, danbor eta tiro hotsen uztartzearena. Nola bizi duzue, barrutik?

J.U. Nik bi modutara bizi ahal izan dut. Ilaren barruan gozatzen nuen, noski, baina kapitain gisa desberdina da. Jendearen begiradetan nabaritzen da une garrantzitsua badatorrela, eskopetariak isildu egiten dira pixkana, eta bidea irekitzen digute plazan sartzeko. Soinu pilo bat dago baina, aldi berean, isiltasuna sentitzen dut

nire buruan, eta urduritasuna. Banda, eskopetariak eta txistulariak batera aritzen dira, baina zuk txistua eta txintxarriak bakarrik entzuten dituzu. Ziur aski dantzarion *frikieria* izango da...

X.N. Niri gauza bera gertatzen zait. Lehenengo urtean saiatzen nintzen giroari begiratzen, baina ezinezkoa da. Plazaren erdi-erdian zaude, eta atera aurreko unek ere tentsioz betetakoak izaten dira.

J.U. Bai, inoiz ez baitakigu noiz atera behar dugun [barreak]. San Roke, Izaskun eta ondoren gu sartzen gara, baina beti zalantzekin ibiltzen gara.

X.N. Irten baino lehen, elizara sartzen gara batzuk, atzeko ate txikitik, San Joan zortzikoa entzutera, oso kontuz, txintxarriak entzun ez daitezen.

O.H. Tentsioa lehenengo pausoa eman arte izaten da, behin dantzan hasita, urduritasuna apaldu egiten da.

J.U. Bai, gainera tentsioa ez da zehazki dantza ondo egiteagatik ere. Une hori bere horretan garrantzitsua da, eta horrek sortzen du guztia.

O.H. Jende pilo bat dago, eta mundu guztia ikusten duzu, baina, era berean, inor ez.

X.N. Oilo larrua oraintxe...

Urtero errepikatzen den unea da, baina, zuen lehen aldia ondo gogoan izango duzue.

I.A. Nik ez dakit gozatu ote nuen ere. Plazan sartu eta bost minutu barru berriro aldatzen ginela sentitu nuen. Oso urduri geunden, eta ez zait sentipen hura ahaztuko.

O.H. Nik orain bi urte parte hartu nuen lehenengoz, arratsaldean, eta uste dut lortu nuela gozatzea.

J.U. Goizean tentsio handiagoa izaten da, hala ere. Bordondantza berez arratsaldean egiten dena bakarrik da, baina goiza edo arratsaldean aukeratzeko emango balizkidate, goiza aukeratuko nuke. Askoz ere hunkigarriagoa da. Ez da gauza bera udaletxetik irtetea edo eliza atzetik irtetea, eta giroa ere desberdina da; jendeak urte osoa darama doinu horren zain.

X.N. Eta herri osoa egoten da goizean kalean, sekulakoa da, kale guzti-guztietan egoten den jendetza.

Urteko egun garrantzitsuenak da Tolosan?

O.H. Bai.

X.N. Bai, niretzat bai.

I.A. Bai, eta politena.

X.N. Ni zain egoten naiz, egun hori noiz iritsiko.

Sanjoanetako tradizioa bizirik mantentzearen errudunetako batzuk zarete baina, aldi berean, tradizioa berri izanaren



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

✉ GUTUNA

Bata bestearen atzetik trabak jartzen

Joan den ostiralean hilak 17 pozarren pozez hasi ginen motxila prestatzen gure arreba-izeba bisitatzera joateko Kordobako espetxera. Bokatak, mantaxoa, paperak, ea... Prestatu eta iluntzeko 20:30ak aldean atera ginen etxetik Gasteizera ni Joseba Egues Gurrutxaga eta gure alaba Maren Egues Belauntzaran Mirentxin furgoneta hartzera Kordobako espetxera eramango gintuena hain zuzen.

Gau osoa errepidean eman ondoren goizeko 07:30ean iritsi ginen Kordobara, kafe-tegi batean gosalduta eta goizeko 08:30erako espetxe aurrean ginen ilusioz beterik, «nola egongo da izeba, eskolan izugarritzko notak atera ditudala esango diot aita, udako planak kontatuko dizkiot eta abar luze bat nuen izebari kontatzeko».

Baina gure ilusioak, poza, irribarreak eta... Ez zigun asko iraun bata bestearen atzetik trabak jartzen hasi zitzaizkigunean bertako funtzionarioak.

Guraso bion baimena behar omen du Marenek adin txikikoa delako, esan nien lehendabiziko aldia zela inprimaki hori eskatzen zigutena, ez nekiela zertaz ari ziren gure alabak hainbat espetxe ezagutu dituela eta milaka kilometro egin dituela bere izeba Ana ikusteko, hala nola, Soto del Real, Avila, Castellon, Huelva, Algeciras eta ez digutela inoiz paper hori eskatu. Espetxeko inprimaki bat da omen, guraso biak batera espetxean bertan

bete beharreko inprimaki bat.

Beno ba, hainbat gestio egin ondoren espetxeko zuzendaritzarekin, espetxe aurrean geratu ginen, ezin izan genuen bisitatu gure arreba-izeba maitagarria 850 kilometro egin eta gero.

Karreteran pasatzen ditugun arrisku guzti hauetaz aparte, zigorra jasaten ari gara senideok eta lagunak. Gure senide Ana azken sei hilabeteetan Kordobako espetxean zigortuta dute, duela lau hilabete amaren heriotza dela eta bere etxera etortzeko dagokion eskubidea ere ukatu egin diote, bere aita eta anaia bisitatzeko, zer gehiago uka dakioke euskal preso politiko bati bere etxeko goxotasuna jasotzeko?

Ana belen Egues Gurrutxagak beste euskal preso politiko asko bezalaxe muturreko egoera bizi du Kordobako espetxean, horrelako egoera gordina, samina eta mingarriak bizi dituzte eguna joan eta eguna etorri estatu Espainiarreko zein Frantziako espetxeetan.

Legeak dio etxetik hurbil egoteko eskubidea dutela euskal preso politikoei. Noiz arte kilometroak eta kilometroak egiten gure bizitza arriskuan jarriaz?

Noiz arte giza eskubideak urratzen eta zapaltzen euskal presoek eta senideei?

Hurbil, etxean eta bizirik nahi ditugu gure senideak aski da!!!

Joseba Egues Gurrutxaga eta Maren Egues Belauntzaran

Elduain

Iekuko ere bai, emakumeen parte hartzearekin. Nola bizi izan zenuten?

X.N. Ikusten zen zer bait berezia gertatzen ari zela, jendearen erre-akzioengatik baina, nik, pertsonalki, naturaltasun osoz hartu nuen.

J.U. Guk talde bizitza egiten dugu Udaberrin, erabat, beraz, niretzat ez zen berezia izan gizon-emakumeok elkarrekin dantza egitea; egunero egiten dugu. Arraroa egiten zitzaidana aurreko urteetakoa zen: dantzari emakumeak eskopetariz zeudela ikustea, jantziekin laguntzera etortzen zirela ikustea; dantzan genero hutsagatik ateratzen ez zirela ikustea. Eta, bestalde, ohore handia izan zen, kapitain postuan dantzatu nuen lehen urtea izan baitzen emakumeen lehen urtea. Oso polita izan zen.

«Gure San Joan eguna bezperan hasten da, emanaldia amaitu bezain pronto»

«Arraroa egiten zitzaiguna 2013 aurreko urteetakoa zen: emakume dantzariak eskopetariz ikustea»

O.H. Nik lehen urte hura kanpotik bizi izan nuen, eta uste dut askoz ere garrantzi handiagoa eman zitzaiola kanpotik, barrutik baino. Nesken aldeko animoak entzuten ziren, eta ziur ordura arte jarraitzea nahiago zuenik ere bazela. Baina uste dut kanpoko jendeak eman duela aldeko edo kontrako iritzia, barrukook baino. Aspaldi gertatu behar zuen zer bait bezala ikusten genuen, eta gertatu zen unean zer bait normaltzat hartu genuen.

I.A. 2013an begiradak gure gainean sentitzen.

Tolosar asko emakumeak noiz aterako zain zeuden.

X.N. Bai, bai.

J.U. Beharbada geronek ez genuen lorpen bezala bizi izan, ez dugulako gatazkarik izan horra iristeko. Urtebete lehenago izan zitekeen, edo hurrengo urtean, baina 2013an gertatu zen, eta kitto.

Juan eta Xanti, zuek dantzari gisa baino ez duzue San Joan eguna ezagutzen. Zuek, aldiz, Onintze eta Irati, eskopetariaren eguna ere bizi izan duzue sarri. Zein desberdintasun dagobien artean?

O.H. Oso-oso desberdina da.

I.A. Zaila da bietako bat aukeratzeari, baina dantzari moduan bizitzen duzuna... sekulakoa da.

O.H. Festako ezinbesteko pieza dira dantzariak, eta jende askok eta askok ez du aukerarik hori ateratzeko; bereziagoa da.

I.A. Dantzari moduan aterata kontzentratuago zaude, batzuk eguzkia baino lehen etxetik ateratzen direlako, eta iluntzeko 20:00ak bitarte ez dugulako bukatzen. Eskopetariekin parranda giroa erabatekoa da, egun osoan.

Arratsaldeko lauretan Plaza Zaharrean hitzordua egiten duzuenen, inbidia pixka bat ere emango dizute eskopetariak, ezta?

J.U. Nik bai, noski. Ni eguerdian etxera joaten naiz bazkaltzea, eta siesta txiki bat egitera, baina eskopetaria banintz, orduan litzateke unerik onenetarikoa.

O.H. Niri ez didate inbidiarik ematen, baina argi daukat dantzan ateratzen ez naizen urtean eskopetariekin aterako naizela, eta ez naizela festari kanpotik begira egongo.

Ekainaren 24an baditu herriar askorentzat ezezagunak diren uneak, batez ere dantzarien plazaratzearen aurrekoak. Nola hasten da bordondantzari baten San Joan eguna?

X.N. Nire eguna bezperatik hasten da: emanaldia bukatu, luzaketak egin eta etxera. Hurrengo egunean, 04:30ak aldera jaiki eta lizarrak moztera joaten gara, 05:30 aldera, oraindik ilun.

J.U. Nik 05:15 aldera egiten dut hitzordua, Trianguloan, eta gu botatako lizarrak biltzera joaten gara kamioiarekin. Gero, Alde Zaharrean barrena botatzen ditugu, beste-ek jar ditzaten. Iaz pasadizoren bat izan genuen, gainera, ertzainekin [barreak].

I.A. Bai, gu azken txandan jaikitzen gara, eta kaleak apaintzen ditugu.

J.U. Gosaria ere nabarmentzekoa izaten da. Zumetara joan, eta sekula jan izan ez bagenu bezala airtzen gara. Salda, arrautzak, txistorra, patatak, hirugiharra, gazta, irasagarra eta kafea. Eta ni hasi nintzenean, bazen anis kopa hartzen zuenik ere; orain ez.

O.H. Orduan hasten dira urduritasunak.

X.N. Zumetan gaudenekoa oso polita izaten da, konpainia guztiguztiak desfilatzen pasatzen baitira paretik, Agintari kalean gora. **Momentu asko errepasatu dituzue jada, baina San Joan eguneke uke kuttunena aukeratu beharko bazenute, zein litzateke?**

O.H. Niretzat plazara lehen aldiz irteten garenekoa.

X.N. Nik ere hori esango nuke, baina iaz Zumardiaundiko aurre-

kuan atzesku izan nintzen, eta ama atera nuen, hari ohorezko agurra egiteko. Ez zait sekula ahaztuko, nire bordondantzako bizipen ederrena da, gehien hunkitu nauena.

I.A. Nik plazakoa gustuko dut, baina, egia esan, arratsaldean, Zumarditik bueltan, agintariei azken zubia egiteko korrika abiatzen gara, eta urtetik urtera lehenago hasten gara korrika. Oso-oso ondo pasatzen dut [barreak].

J.U. Nik ere lehen zortzikoa dantzatzen dugunekoa aukeratuko nuke, baina, Xantiren bidetik, atzesku nintzela arrebari dantza egin nionekoa barruan gordeta dut. Zure dantzari bizitza eta zure bizitza pertsonalaren arteko lotura egiten du nolabait.

Auresku bukatu eta guztia jasota, orduan hasten da zuen eskopetari bizitza.

J.U. Edo futbolari bizitza, gure bordondantzari kamisetengatik barre pixka bat egin izan digute eta. Denak festan bete-betean sartuta daudenean, gu orduan hasten gara saltsan sartzen, desorekatu samar, baina ederki pasatzen dugu.

O.H. Raku tabernaren kanpoaldean txarangarekin sortzen den giro hori errepikaezina izaten da. Han eskopetari guztiak eta dantzari guztiak egoten dira, adin guztietakoak.

Eta, adinaren harira, belaunaldi berriek bordondantzari-etsiko diotela uste duzue?

J.U. Nik uste dut festak bere horretan jarraituko duela, baina arratsaldeko aurrekuaren una aldatu egingo dela. Batetik, luzera eta, bestetik, mutilek neska bat ateratzeari edo neskek mutil bat. Gaur egun formatu hori ez diot zentzurik ikusten, egia esan. Horrelako zer bait egingo nuke, baina beste modu batera.

X.N. Nik Zumardiaundikoa mantendu egingo nuke aldiz, lekua paregabea iruditzen zait.

O.H. Nik, egia esan, ez dut sekula pentsatu hamar urte barru nola egongo garen. Duela hamar urte, adibidez, neskak artean ez ginen ateratzen.

J.U. Soka dantzaren ondoren pururik ez digu oparituko aurten udalak, eta hori aldaketa bat da [barreak]. Ez zuen zentzurik, egia esan. Antzinako tradizio zahar hori berritzeko garaia zen, puruekin ez baitugu ezer egiten. Eta, bordondantzaren bizirautearekin ere zalantza handiegirik ez dut, eta, are gutxiago, emakumeak parte hartzen hasi zaretenez geroztik. Udaberriren etorkizuna ikusita, behintzat, bordondantzak etorkizun oparoa du.

Hilberriak eta urteurrenak



Iñaki Bergara Izagirre

Iñaki Pio
2016ko ekainaren 22an hil zen

BETIRAKO GURE BIHOTZEAN.
FALTAN BOTAKO ZAITUGU.

Etxekoak

Herri txiki, festa handi

Imanol Garcia Landa

San Joan jaiak esan eta eskualdean pentsatuz gero, Tolosa etorri ohi da burura. Baina badira bi herri bere festa nagusiak ospatzen dituztenak ere: Abaltzisketa eta Belauntza. Gogoz aritzen dira festak prestatzen eta gogoz daude festak hasteko. Bi herrietan gaur hasi eta igandera arte iraungo dute ekitaldiek.

Omayra Zubeldia Abaltzisketako festa batzordeko kideak jaiari buruz nabarmendu duenez, «dantza soka mantentzen saiatzen gara eta herriko gaztetxoek parte hartuko dute San Joan bezperan. Horrez gain, jakin-mina piztu du igandean izango den aizkora desafioak». Zubeldiak gaineratu duenez, «beti saiatzen gara apustu edo desafioen bat antolatzen. Interesa sortu du eta zabaltu da ekitaldiaren berri».

Beste hainbat ekitaldi interesgarri izango dira Abaltzisketan: aurten bigarren edizioa duen frontenis txapelketako finalak,

Abaltzisketan eta Belauntzan San Joan jaiak ospatuko dituzte gaur hasi eta igandera bitarte; gogoz prestatu dituzte eta giro onean pasatzea espero dute



Haurrentzako ekitaldiek, iaz bezala, bere lekua izango dute aurten ere Abaltzisketako eta Belauntzako festetan. E. MAIZ



Anje Duhalde bakarlariaren kontzertua, festetako klasikoa den zaldi lasterketa...

Belauntzan, ohiturarekin jarraituz, kanpai hotsekin hasiko dituzte festak. Mariano Lazkano

Belauntzako alkateak azaldu duenez, festetan «herri giroa izaten da. Urte guztian egoten dira herritarrak festen esperoan». Jendea elkartzeko eta elkarri kontuak esateko aukera apropos

sa izaten direla gaineratu du Lazkanok.

Horren lekuko izaten da herri afaria, larunbatean egingo den herriko tabernan. Hain justu, txartelak erosteko azken eguna

gaur da, eguerdira arte, eta tabernan bertan erosi daitezke. Herri-tarrak kantuan eta bertsotan aritzen direla dio Lazkanok. Lau egunetan adin guztientzako ekitaldiak antolatu dituzte.

SAN JOAN FESTAK

Abaltzisketa

EKAINAK 23, GAUR

17:30. II. Frontenis Txapelketako finalak.

21:30. San Joan sua, eta San Joan dantza eta soka dantza herriko gaztetxoek dantzaturik. Jarraian, Dantzadi taldearen emanaldia.

EKAINAK 24, BIHAR

11:00. Meza nagusia. Ondoren, erre-tirodunen hamaiketako. Bitartean, triki poteoa egingo da herriko gazteen eskutik.

13:00. III. Aitor Toka Txapelketa, herrikoentzat soilik.

19:00. Anje Duhalde bakarlariaren emanaldia.

21:00. Barrikotea herriko plazan, afaria bakoitzak berea eraman beharko du. Jarraian, Unsain anaiekin erromeria, plazan.

EKAINAK 25, ETZI

11:00. Ume jolasak.

15:30. XIV. Mus Txapelketa (bikoteko kide batek gutxienez abaltzisketara izan behar du).

21:00. Sagardo dastaketa, herriko plazan (afaria norberak eramanda). Kafea laguntzeko Mikel Artola eta Beñat Iguaran bertsolariak ariko dira. Ondoren, Zesuma taldea.

EKAINAK 26, IGANDEA

12:00. Desafioa: bi neska, Maikaitu-

rendarra eta Irune labaiendarra, Iñaki Aierbe ataundarraren kontra. (Neskak bi eskuekin eta mutila batekin).

18:00. Zaldi lasterketa, Amezketatik Abaltzisketara. Ondoren, herritarren arteko jokoak.

20:30. Herri afaria. Postrea festa batzordeak jarriko du. Jarraian, erromeria Elustondo anai-arrebekin.

22:00. Erromeria Elustondo anai-arrebekin.

UZTAILAK 3, IGANDEA

San Pedro Eguna Larraitzen

12:30. Meza nagusia. Ondoren, hamaiketako eta trikitilariak.

Arratsaldean. Trikiti doinuak iluntzera arte.

Belauntza

EKAINAK 23, GAUR

21:00. Festei hasiera emango diete, san joan sua piztuz eta kanpaiak joaz, suziriekin lagunduta.

EKAINAK 24, BIHAR

09:00. Txistulariak herrian zehar eta suziriak.

10:30. Meza nagusia San Joan elizan. Ondoren, dantzarien emanaldia izango da.

12:00. Hamaiketako herriko tabernan bertsolariekin.

19:30. Igeldoko abesbatza, San Joan elizan. Ondoren, urdaiazpiko mozketak eta pintxo potea herriko tabernan.

22:30. Mus Txapelketa herriko tabernan.

EKAINAK 25, ETZI

10:00-14:00. Haur jolasak.

16:00-20:00. Haur jolasak.

21:45. Herri afaria tabernan trikitia eta kantariekin.

EKAINAK 26, IGANDEA

10:30. Meza San Joan elizan.

11:00. Gorriti eta bere animaliak.

18:30. Zumba dantzaren erakustaldia eta nahi duenak parte hartzeko aukera. Frontoian edo eliza aurrean, eguraldiaren arabera.

20:00. Saiheski jatea herriko guztientzat, festei amaiera emateko.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
9436 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua, 24
Donostia
Tel.: 943 46 44 04
www.eltxuri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 Hernialdeko Ostatua

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

943 652 496
Hernialde

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.info webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Eguzkiaren garretatik sugarretara

Eskualdeko ia herri guztietan ospatzen dute San Joan bezperako eguna, suaren inguruan

Uda teknikoki hasi bada ere, sinbolikoki gaur gauean esnatuko da, sua piztearekin. Ekainaren 23an egin ohi da egun, San Joan bezperan, suaren inguruko festa, eskualdeko herri gehienetan bizilagunak plazan biltzen dituen. Bereziki San Joan jaiak ospatzen dituzten Tolosa, Belauntza eta Abaltzisketan du bere garrantzia. Anoetan ere gau berezia da, San Joan egunaren inguruan herriko festei jarraipena egiten baitiete. Baina herri



Tolosako Santa Maria plazan iaz egindako suaren inguruko festaren une bat. M. IRAOLA

gehienetan du bere esanahia eta presentzia festa honek, haur zein heldu biltzen dituen. Suak, nonbait, erakargarritasun handia baitu. Horrela, eskualdeko hainbat herritan afariak egingo dituzte, dantza eta kantua ere ez da faltako, eta Tolosako San Joan plazarako akelarrea ere prestatu dute.

Suak sinbolikoki esanahi handia du, baina bere arriskuak badiu. Hain justu, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak ohar bidez San Joan suekin kontuz ibiltzeko deia egin die herritarrei, beharrezko autobabes neurriak hartu, eta suaren ondoriozko balizko istripuak saihesteko.

SAN JOAN BEZPERA

Abaltzisketa

Ikusi festetako egitarua aurreko orrialdean.

Albiztur

20:00. Arkaitz elkarateak eta udalak mokadua eskainiko dute, plazan.
21:00. Sua piztuko dute.

Aduna

19:30. Adunako Euskararen Aldeko Taldeak maiatzaren 22an grabatu zuten Lip Dub-a ikustera gonbidatzen ditu herritar guztiak. Argazkiak eta ipuina ere ikusi ahal izango dira. Emanaldiaren ostean, San Joan sua piztera hurbilduko dira kalejiran, Uztartza ondoko aparkalekuraino.

Alegia

20:45. Salbea abestuko du elizan Txintxarri abesbatzak.
21:00. San Joan sua plazan. Txintxarri abesbatzak, Sutarri dantza taldeak eta herriko txistulariek Bordon Dantza eskainiko dute.

Alkiza

20:00. Herri afaria, guraso elkarateak antolatuta, hilerrri ondoko aparkalekuan.
22:00. Sua piztuko dute.

Altzo

21:15. Sua piztu, bedeinkatu, Artea dantza taldearen saioa eta zahagi ardoa. Ardoa udalaren kontura izango da.

Amasa

21:30. Sua piztuko da eta afaria egingo dute plazan. Norberak eramango du afaria etxetik.

Anoeta

18:00. Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.

20:30. Herri afaria plazan. Kuadrilla bakoitzak bere platerak, mahai tresnak, basoak eta ahozapiak eraman ditzala. Zero Zabor filosofiari jarraituz, saiatu mesedez paperezko edo plastikozko materialak saihesten.
22:15. Txalapartariak San Joan Bezperako suaren jaia iragarriko dute. Ondoren, suaren inguruan San Joan zortziko kantuak eta erromeria, aho soinuarekin.

Asteasu

21:00. San Joan sua piztuko dute. Tradiziozko dantza egingo dute.

Baliarrain

20:00. Afari merienda egingo da plazan. Norberak eraman behar du jatekoa. Edaria jai batzordeak jarriko du. Afalostean, San Joan sua piztuko da.

Belauntza

Ikusi festetako egitarua aurreko orrialdean.

Berastegi

15:30. Pilota partidak, dantza eta trikitia, emanaldiak eta judoak.
21:00. Herri afaria. Ondoren, San Joan dantzak eta San Joan sua, guraso elkarateak antolatuta.

Berrobi

21:00. Urruti baserrian ateak irekita egongo dira, mahai, aulki, parrila eta sagardoarekin. Bakoitzak bere afaria eraman edo prestatu ahalako du.
22:30. Sua piztuko dute.

Bidania-Goiatz

20:30. Parkean elkartuko dira, norberak eramandako afariarekin. Edaria, berriz, udalak eta Ernio Guraso Elkarateak jarriko dute. Ondoren, sua piztuko dute.

Elduain

17:00. Plaza zaharrean elkartuko dira. Bertan elkartzen direnek (heldu nahiz gazte) sua osatuko dute. Horretarako etxe inguruan dauden adaxkak, zotzak... bilduko dituzte (koltxoi, armairu,... tamaina handikoak ez dira jasoko). Komenigarria da aldezturik, umeei etxean zerbait jasotzeko duten zehaztea, bilketa lanean hasi baino lehen. Afariari dagokionez, norberak etxetik eramandakoa elkarrekin jateko aukera izango da. Edaria bertan izango da, ardoa, sagardoa, ura, kas, koka kola... Edalontzia ere, etxetik eraman behar da. Sua afal ostean piztuko da.

Gaztelu

21:00. Erroizpe kirol elkarateak antolatuta, sardinak erreko dira plazan.
22:30. Sua piztuko dute futbol zelaietan, eta Txispiri Guraso Elkaratea eta Erroizpe elkaratearen eskutik haurrek eta helduek suaren inguruan dantza egingo dute. Musika zuzenean izango da, herriko musikarien eskutik.

Hernialde

20:30. Zahagi ardoa izango da. Udalak jarriko du edaria eta kafea.
22:30. Sua piztuko dute plazan eta ondoren herriko dantzarien emanaldia izango da bertako musikariekin.

Ibarra

20:00. Afaria: norberak janaria eta edalontzia eramango ditu eta Hauspoak mahaiak eta sagardoa jarriko du.
21:30. Kanpai-hotsak, garai bateko kanpai-joleak gogoratuz.
21:50. Suaren inguruan dantza egingo dute.

Ikaztegieta

21:00. Afaria egingo dute herriko plazan. Jatekoa norberaren kontu izango da, eta edaria (ardoa, sagardoa eta ura) udalak jarriko ditu.
22:30. Sua piztuko dute. Suaren inguruan dantza egitera animatzen dituzte herritarrek.

Irura

21:45. Dantzari txikien emanaldia.
22:00. Sua piztuko da, eta ondoren Eguzki Goxo abesbatza eta Irurako dantzarien emanaldia. Udalak pasatak eta ardo-goxoa jarriko ditu.

Larraul

Sua piztuko dute plazan eta horren inguruan afaria egingo dute.

Lizartza

20:00. Afaria egingo dute. Norberak eraman behar du afaria, eta udalak mahaiak eta aulkiak jarriko ditu.
22:00. Suaren piztueria Otsolar dantza taldekoekin.

Orendain

21:00. Sardina jatea, plazan, Orendaingo sorginek antolatuta doan izango da. Sardinak, gazta eta irasagarra sorginen kontura izango da, eta edariak eta kafea udalak jarriko ditu. Sorginek dantza egingo dute, eta ondoren, sua piztuko dute. Jarraian, musika eta festa txiki bat izango da.

Orexa

20:00. Urrutxugainen egingo dute, bertako bizilagunek antolatuta. Dantza egingo dute, ondoren sua piztu eta gero afaria.

Tolosa

16:00. Igeriketa-probak Usabal kiroldegian: XLVII. San Joan saria.

17:00. Txistularien kalejira, antzinako erronda-bidetik barrena.
17:00. Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren irteera, Gernikako Arbola lorategitik.
18:00. Jaien hasiera iragartzeko, suziri baten jaurtiketa.
18:00. Iraunkorrak txaranga kalez kale ibiliko da herria doinuaz alaitzen.
19:00. Plaza Zaharrean, haurrentzat San Joan su txikia.
19:30. Bertso jaialdia Zerkausion.
19:45. Arrameleko San Joan kaperan bezperak eta arrats otoitzak.
20:00. Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua: Berdura plazan.
22:00. San Joan sua: Andre Maria Plazan.
22:00. Emakumea naiz eta euskalduna Akelarre gaua: San Joan plazan.
23:00. Kontzertua Plaza Berrian: Potentor, Spira eta Choice.

Villabona

22:00. Errebote plazan piztuko da sua eta emanaldian parte hartuko dute Oinkari eta Oinargi dantza taldeek, eta herriko trikitilariek eta txistulariek.

Zizurkil

Zizurkil Beheran
20:00. Plazan bilduko dira herritarrek, eta Elbarrenako su ezberdinak bisitatuko dituzte kalejiran.
22:30. Sua piztuko dute, eta San Joan Dantza dantzatuko dute, eta zizka-mizka batekin amaiera eman go zaio.

Zizurkil Goian

22:00. Sua eta txokolate jatea, San Millan eskolako guraso elkarateak antolatuta.

Udalak deituta herri batzarra, gaur, Adunan

Erredakzioa Aduna

Gaur, ekainaren 23an, 18:30ean, Adunako kultur aretoan izango da herri batzarra udalak deituta eta herritarrei dei egin diete bertara azaltzeko.

Besteak beste, 2013-2020 epealdirako Plan Estrategikoaren 2016ko ekintza nagusiak azalduko dira bertan. Udalak, aurtun burutu duen udal-eraikinen azterketa energetikoaren emaitza

nagusiak aurkeztuko dira. Herri-tarrek, bestalde, etxebizitzetan energiari lotutako kontuak ondo ulertu eta erabakiak modu egokian hartzera zuzendutako sentsibilizazio-saioaz hitz egingo da.

Bileran hitz egingo diren gaiei buruzko zalantzak izanez gero, udaletxera dei dezakete herritarrek, 943 69 25 71 telefonora edo mezua bidali udala@aduna.eus helbidera.

Euskararen erabilera sustatzeko laguntzak emango dituzte

ANOETA // UEUK euskaraz antolatzen dituen udako ikastaroetara joaten diren anoetarrak, diruz lagunduko ditu udalak. Eskaera egiteko epea, uztailaren 15ean bukatzen da. Bestalde, ikasturtean zehar euskara ikasteko laguntza eskatu duten ikasleek ikasturte amaierako agiriak aurkeztu behar dituzte lehenbailehen, udaletxean.

LGTB kolektiboaren eskubideei buruzko ekintzak

IRURA // Gehitu eta udalak antolatu dituzte ekimenak. Ekainaren 28, 29 eta 30ean ikastolako plazako gela borobilean LGTB kolektiboaren eskubideei buruzko panelen erakusketa ikusteko aukera izango da. Uztailaren 1ean, berriaz, Jon Garaño eta Joxe Mari Goenagaren *80 egunean* filma ikusteko aukera izango da, euskaraz, 18:00etatik aurrera.



UDAN JARRAITUKO DUTE

Aurrera jarraitzen dute Irurako ikastolako eraikin berria egiteko lanek. Obrek ez dute etenik izango udan eta hurrengo urte hasierarako espero dira lanak amaitzea. Bien bitartean, ikastolan ibilbide osoa egin duten seigarren mailako ikasleak agurtu zituzten aurreko ostiralean. Opariak, dantzak eta kantak izan ziren ikasleentzat. JON MIRANDA



Tolosaldeia IKTn datorren ikasturtean izen emateko aukera

TOLOSALDEA // Matrikulazio epea zabaldu du Tolosaldeia IKTk. Igeri egiten ikasi nahi duten 6 urtetik gorako haurrek ekainaren 27an eta 28an igerilekura gerturatu beharko dute frogatuta egitera. Villabonako Oladerran 15:00etan eta Tolosako Usabalen 16:30ean egingo dira frogak. Informazio gehiagorako tolosaldeiaikt.tek@gmail.com helbidera idatzi edo 667 631 742 telefonora deitu daiteke.

Kirol festa egingo dute larunbatean Intxaur frontoian

ZIZURKIL // 18:00etan hasita, trikitilariak, pintxoak eta txosna izango dira eta sarrera-laguntzak 3 euro balioko ditu. Besteak beste, Iñaki Urkola *Xaldu*k, Herrioren joan etorria egingo du. Pilotan, berriaz, neskak palaz bina-ka ariko dira eta mutilak, berriaz, eskuz bina-ka. Trontzan bi bikote ariko dira eta lasto altxatzeko proba ere izango da tartean. Bukatzeko, aizkoran lau enbor eba-ko dituzte beste bi lagunak.

Udal bulegoak eta udaltzainen bulegoa lekuz aldatu dira

ZIZURKIL // Apirilaren 23tik itxita daude Aurrera plazako udal bulegoak, eta zerbitzua Joxe Arregi plazako bulego berrietan ematen da, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera bitartean. Udaltzaingoa ere lekuz aldatu da. Aurrerantzean, Atxulondo kultur etxean egongo dira, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 21:00ak arte. Larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara bitartean egongo da irekita bulegoa.

Txakur kakak jasotzeko kanpaina abiatu dute

ZIZURKIL // Zizurkilgo Udalak txakur kakak jasotzen ez dituzten jabeak sentsibilizatzeko alderaz enbait ekimen jarri ditu abian. Adibidez, herriko lorategietan karteltxoak jarri dituzte txakur kakak jaso behar direla gogoratzeko. Bestalde, edukiontzi gehiago jarri dituzte eta txakur jabeek eskutitz bat bidali diete txakur kakak ez jasotzeak izan ditzakeen arriskuez ohartarazteko.

Estradizioaren aurkako ekimenak ugaritzen ari dira

Suitzan espetxez aldatu berri duten Nekane Txapartegi Espainiaratu ez dezaten gutun bidalketa masiboa antolatu dute

Jon Miranda Asteasu

Ekainaren 16an, ostegunean, Zurichetik ordu erdira dagoen Dielsdorf hiriko kartzelara aldatu zuten Nekane Txapartegi preso. Bezperan, trasladoaren berri jaso zuten senideek eta ostiralean ikusi ahal izan zuten Jokin anaiak eta Josune arrebak.

Bisita ondo joan zela eta Txapartegi ondo ikusi zutela jakinarazi zuten anai-arrebek. Suitzako Dielsdorf hiriko kartzelara dute orain eta esan dutenez, espetxe txikia da, 50 preso inguru daude bertan.

Espetxe berriko funtziona-

mendua, oraindik ez du ondo ezagutzen Nekane, «baina momentuz ziegatik ateratzeko aukera gehiago du aurreko kartzelari baino, ordu pare bat ateratzen uzten omen dute». Astelehenean ordubeteko bisita izaten jarraituko du eta senideei baieztatutako dietenez, «alabarekin kristalik gabe egin ahal izango ditu, aurrez aurrekoak». Hala eta guztiz ere, espetxe berrian bisitak aste barruan izango dituztela jakinarazi diete, «astelehen edo astearteetan».

Hurrengo egunetan, Nekane- ren egoeraren inguruko informazio gehiago jaso eta horren

berri emango dute senideek. Bien bitartean, presoari gutunak bidaltzen jarraitzea animatu dituzte herritarrek, «azken aldian gutun gutxi jasotzen ari da, ez dakigu geldituta ote dituzten edo gutxiago idazten ari garen. Beraz, jendea animatu nahi dugu idaztera». Hau du helbide berria: *Nekane Txapartegi. Gefängnis Dielsdorf. Spitalstrasse 5. Postfach 115. 8157. Dielsdorf.*

GUTUNAK SUITZAKO JUSTIZIA MINISTROARI

Txapartegiren senideek, Euskal Herriko mugimendu feministako kideek, Eleak-Libre paltafor-

makoe, Jaiki Hadi elkartekoe, torturatuak izandako emakume eta gizonek eta 18/98 sumarioko kideek Donostian agerraldia egin zuten aurreko ostegunean, gutun bidalketa masibo bat iragartzeko. Suitzako Justizia ministroari luzatuko diote Nekane- ren estradizioa geratzeko eskaria.

Espainiak egindako estradizio eskari baten ondorioz atxilotu zuten asteasuarra apirila hasieran Zurich. Donostian bildutakoek salatu zuten, Txapartegi oinarritzeko eskubide zibil eta politikoa ukatu zaizkio. «Torturen ondorioz egindako auto-in-kulpazio batean oinarritu dute bere aurkako akusazioa».

Bide batez, tortura sexistaz hitz egin zuten Donostian eskainitako agerraldian. «Indarkeria mota hori ere sexu bereizkerian eta botere harreman patriarkalean oinarritzen baita hein batean». Ekimena babestu dutenek, *Nekane Libre* plataformarekin bat egin dute.



IKASTURTE AMAIERAN, BELABIETAKOAK GETXON ETA TOLOSAKOAK USABALEN

Aurreko asteburuan ospatu zen gimnastika erritmikoako Getxoko Txapelketa. Ibarako Belabietakoak bertan izan ziren, eta ondorengo emaitzak lortu zituzten: senior taldea laugarren postuan gelditu zen; Aintzane Agirrek eta Maider Zabalak, aldiz, bigarren postuak eskuratu zituzten, jubencil B eta senior A mailetan. Bestalde, Tolosa CF Gimnastika Erritmikoako gaztetxoek ikasturte amaierako ikuskizuna eskaini zuten, iragan ostiralean, Usabal kiroldegian. Harmailetan, guraso, senide eta lagunak zain zituzten, eta baita taldeko kideak ere, giro ederra jarriz kiroldegian. BELABIETA GIMNASTIKA ERRITMIKOA/ITZEA URKIZU

XXVI. Tennis Txapelketaren finalak igandean jokatuko dira

Bi hilabete iraun duen txapelketaren azken partidak Berazubín jokatuko dira

A. Imaz Tolosa

Tolosa CF-k antolatzen duen Tennis Txapelketa azken astean sartu da, finalak igandean jokatuko baitira, 12:00etatik aurrera, Berazubín. Maiatzaren 28an jarri zuten martxan txapelketa. 26 lagunek eman zuten izena, eta Gipuzkoa osotik etorritako tenis jokalariak aritu dira lehian. 26 jokalariak sei multzotan banatu zituzten, eta parte hartzaileak bakantzen joan diren heinean, finalak gerturatzen hasi dira. Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek txapelketa nagusia jokatzen dute, eta beste guztien artean, kontsolazio txapelketa jokatzen ari dira.



Parrondo eta Iraola. @TENISTOLOSA

Susana Davilak sei marka berri egin ditu



Susana Davila podiumeko bigarren kaxoian. PEDRO MIGUEL ALONSO GARCIA 'PEPO'

Espainiako Txapelketan izan dira Danok Danenako pultsulariak, bi domina ekarriz Villabonara

Danok Danena Komunitatea

Ekainaren 11an Espainiako Ab-soluto Mailako Txapelketa jokatu zen, Madrilen. Bertan Danok Danena Halterofilia Taldeko pultsulariek parte hartu zuten emaitza hauek lortuz.

Nesketan, zilarrezko domina bat ekarri zuten etxera eskualdeko pultsulariek. 58 kilotan, Susana Davila billabonatarak, bigarren postua eskuratu zuen. Horrez gain, Davilak Euskadiko sei marka puskatu zituen. Hiru juniorren mailan, eta beste hiru absolutuan: 77 kilo arrankadan,

97 kilo bi denboratan eta 174 kilo total olinpikoan.

Susana Davilarekin batera, Naiara Madrid ere lehiatu zen, eta 48 kilotan seigarren egin zuen.

Mutilei dagokienez, Mikel Alvarez izan zen dominarekin itzuli zena Madriletik. 85 kilo kategorian hirugarren egin zuen Alvarezek. 62 kilotan Ekaitz Kortajarenak hartu zuen parte, eta bosgarren postu batekin konformatu behar izan zuen.

Danok Danena Halterofilia Taldeak guztiak zoriondu nahi izan dituzte, eta pultsulari hauen txapelketa ona izan dela gogoratu dute, ez baita ahaztu behar maila oso altua zegoela: «Olinpiar Jokoetara joateko plazak zeuden jokoan, eta ondorioz, lehiakortasun handia».

Zia edo boga

Gautxoriei, buruz gain

Twitterren #astearte-iluntzeeta-koesaldiak traola dantzan jarriko balute, «Larunbat honetan ez dut parrandarik egingo» izan liteke txio errepikatuene-tako bat. Baina asteburuak buruz gain pasatzen dio pilota esan horri; gautxorien kondena, Glaukomak ederki abestu zuen moduan. «TKE ligako lehen estropadak ez du ezertarako balio» ere hamaika bider entzun izan dugu, baina, nago, traolen beharrik gabe, Sevillako estropadak ere tanto ederra egin diela gizon-zkoen zenbait ontziri.

Egin gabeko pronostikoek berretsi dute, egiteko arrazoirik ez zegoela, eta Ama Guadalupekoa ederki moldatu da, aspaldi hartutako olatu gain horretan. Hori bai, asteburuak luze joango zaizkigu zaleoi, gainontzeko traine-ruak apar horretatik zertxobait edaten ez badute. Eta kolore urdinak izan lezake ligan saltsa jartzeko gakoa. Urdaibairenak? Hori esan gabe doa.



Itzea Urkizu

Astilleroz ari nintzen. Zalantzarik gabe, joan den igandeko sorpresa, eta ez laugarren postua –askok beso zabalik hartuko genukeen hori –eskuratu zuelako. Bakarrik. Zia-bogetako kronoei

erreparatuta, Hondarribiak azken maniobran soilik lortu zuelako kantabiarrek gainditzea. Etxean dira hurrengo hitzorduan, eta adi.

Ustez adi nintzen, bai, igande eguerdiz arraunzale ofizialaren erritualei eutsi eta denboraldia tosta artekoari begira hasteko. Astearte iluntzeko esaldiari neronek egin nion, ordea, tantoa, eta emakumezkoan Gipuzkoako ligako emaitzak twitterren ikustea izan zen, gautxoriaren zoriona. Hemen ere, idatzi gabeko pronostiko arrosak irabazle, baina horien arnasa lepoan dutela.

«Hau hasi besterik ez da egin» pentsatu nahi du askok, baina, horixe: hasi da festa, hasi da xake partida, eta batzuen estatxa matetik askoz ere gertuago dago jada.



Hondarribian, Donibane Lohitzunen, Pasaian eta Getarian hurrengo lehiak. M.I.



OSTEGUNA, 2016KO EKAINAK 23
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.info
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.info
Bezero arretra zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.info

ATARIA IRRATIA
107.6 FM / 105.0 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Ballarín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



San Joan jaiak uhin bidez, barru-barrutik

Ostirala San Joan eguna da, eta Tolosan bezala, Abaltzisketan eta Belauntzan ere egun handia dute ospakizunetarako



San Joan egunez, goizean, eskopetariak udal korporazioari eskaintzen dizkiote lehen trakak, Plaza Zaharrean. R. CALVO

Eneritz Maiz

Gaurkoa gau misteriotsua izan ohi da. Ia ez da herri, auzo edo baserririk sua piztuko ez duenik. Joan da udaberria eta badator uda. Tradizioak festarako bide emango du, eta akelarre moduan ospatuko dituzte herritar askok. Suaren bueltan salto eta dantza egingo dute.

Suak, ordea, San Joan egunari emango dio bide, eta ATARIA irratia ere, festa hauek barru-barrutik bizi nahi ditu. Bulegoko irratia estudioa utzi, eta Tolosako Zer-

kausitik ariko da zuzenean, bihar. 10:00etatik 12:00etara berteko *Pasahitza* saioak lizar usaina izango du.

Besteak beste, Tolosako San Joan egunak dituen protagonistak pasako dira mikrofonoetatik: dantzariak, musikariak, eskopetariak, udal ordezkariak,... eta kalean bizitzen ari denaren berri emango da. Baita asteburuak zer ekarriko duen ere. Nola ez, Tolosan bakarrik ez, eskualdean Abaltzisketan eta Belauntzan ere handiki ospatzen dituzte San Joan jaiak eta bertarako jauzia

ere egingo du ATARIA irratia. Bertatik, bezperak utzitakoa eta goizean bizitzen ari direnaren berri jasoko da, eta asteburuan zer izango duten ere kontatuko digute.

WEB ORRIAN ERE BAI

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du atsedetik hartuko, eta festarik festa ibiliko da San Joan jaietan. Guzti horren berri, *ataria.info* webguneak jasoko du. Suziriak leheritzen direnetik hasi, eta egunez egun, herri bakoitzeko festen berri emango da, irudiek.

OSTEGUNA 23

AGENDA

Deialdiak

Aduna. Herri batzarra 18:30ean, kulture aretoan. 2013-2020 epealdirako Plan Estrategikoaren 2016ko ekin-tza nagusiak azalduko dira bertan.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskualdeko berriak, Gazteekin solasean, Tolomendiren atala, Quark zientzia atala, Agurtzane Larrañagaren errezeta makrobiotikoa eta lehiaketa, deitu 943 698038ra edo mezua bidali 687410033ra 10:45etik 10:55era. Antton Telleriaren eskutik eguneko abestia saioa amaitzeko.

11:00-12:00. Hamaiketakoa.

Tolosako albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaiak.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko saioak utzitako onena.

21:00. Ataria iluna.

28 KANALA

12:30. Elgeta ezagutzeroa nator.

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:00. Ikusi Irratia. Bi Bala.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Eguneakoa.

Bengoetxea, E.

Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 38 49.

Gauekoa. Morant, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Aldaketa dator. Goizean goizetik, haizeak hego-mendebal, mendebaldeko ukitua izango du, nahiz eta oraindik ere tenperatura altua izango den, 24-25 gradu. Eguerdirako, ordea, haizeak ipar-mendebaldera egingo du eta freskatzeko hasiko da. Arratsaldean zerua estaltzen hasiko da, eta gainera, arratsalde gau partean baliteke zaparrada txikiren bat edo beste botatzea, eta ekaitz punturen bat ere izan dezakegu. Eze-gonkortasuna izango da, eta tenperatura 20 gradutara jaitsiko da.

Bihar. Motelaldiak jarraipena izango du. Egun osoan zehar zerua nahiko estalita agertuko zaigu eta egunaren amaieran baliteke ostareren bat edo beste zabaltzea, baina orokorrean estalita mantenduko zaigu. Tenperaturak beherako bideari eutsiko dio, eta 20 gradutara iritsi ezinik ibiliko da. Euria egingo du. Euri gehiena goiz partean egingo du, eta arratsalde partean apenas botako du, zirimiri moduan. Giro motela izango da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Jantzi dotore San Joan Jaietan!

Berezi

NEURRI BEREZIAK
Gazte eta emakumeentzako moda

44-64 neurriak

Errementari kalea, 3 • Tolosa • Tel.: 943 674 965 Berezitallasespeciales

www.berezitallasespeciales.net

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.info
San Esteban 20
Tolosa